



57 JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY / JUILLET
21-25 2022

IGGY POP ABESLARI MITIKOA 57 JAZZALDIAREN PROGRAMAZIOAN

SALGAI JARRI DIRA JADA TRINITATE PLAZARAKO ETA KURSAAL AUDITORIORAKO SARRERAK

Emakumezkoen presentzia nabarmena Donostiako 57 Jazzaldian:

**Diana Krall, Hiromi, Amina Claudine Myers, Lakecia Benjamin,
Miho Hazama**

Donostiako Jazzaldiaren datorren edizioak, 57.ak, luxuzko programazio bat aurkeztuko du. Trinitate Plazan eta Kursaal Auditorioan izango diren emanaldien berri ematen dugu oraingoan. Gainerako agertokietako programazioa geratzen da iragartzeko, baina orain ezagutzera ematen duguna, berealdikoa da jada, gure artean izango baititugu Herbie Hancock, Iggy Pop, Diana Krall, Gregory Porter, Amina Claudine Myers, Hiromi, Yann Tiersen, Kurt Elling, Calexico, Steve Coleman, Louis Cole, Lakecia Benjamin eta Miho Hazama.

Kursaal Auditorioan bost emanaldi iragartzen dira, guztiak 18:30ean, uztailaren 21etik 25era. Lehenak **Calexico** izango du protagonista. Arizonako taldeak AEBetako hegoaldeko musika-tradizioaren eta Mexikoko musikaren distira eta sentimenduaren arteko fusio autentikoena egiten du.

Oraingo Jazzaren bokalista handienetako bat, ahots zoragarria eta melodiarako aparteko sena duena, **Gregory Porter** da, eta bera izango da Kursaalaren bigarren egunean arituko dena.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus

www.jazzaldia.eus



57 JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY / JUILLET
21-25 2022

Hurrengo egunean, uztailaren 23an, espero ez zena: **Iggy Pop**. Punkaren Godfather mitikoak —nork imajinatuko zein eta bera *auditorio* batean— gure Kursoalen eskainiko du emanaldi bat, Europako hainbat hiritatik esparru itxietan egingo duen biraren barruan.

Yann Tiersenek urte batzuk dihardu gogoia bilduta bere jaioterriaren ezaugarriak musikaren bidez deskribatzen: Finisterre bretoaia, bere paisaia ilaun eta bere uharte enigmatikoekin. Hala, uztailaren 24an, bere artearen edertasun sakonarekin gozatzeko aukera izango dugu.

Herbie Hancock, zalantzarik gabe, musikari legendario bat da, Jazzaren garai loriatsu baten ordezkaria; izan ere, Miles Davisen laguntzaile izan zen bere talde gailenetako batean baino gehiagotan, eta ordutik gaurdaino ez du ez galdu gaurkotasun izpirik; meritu handia, benetan. Hala, berak emango die azkena Kursoaleko emanaldiei, uztailaren 25ean.

Trinitate plazak, eserleku zenbakituekin, lau emanaldi bikoitz eskainiko ditu, bakoitza bi kontzertuekin, uztailaren 22tik 25era; guztiak 21:00etan izango dira.

Bi emakume japoniar, **Miho Hazama** harrigarria eta **Hiromi** zoragarria, protagonista dituen emanaldi batekin hasiko gara. Hazamak bere lan berrienak aurkeztuko dizkigu Musikene Summer Big Band taldea zuzenduz, Goi-mailako Kontserbatorioko ikasle eta ikasle ohi bikainenetako batzuek osatutako banda. Hiromi pianista handia izango da jardunaldiaren izarra, bere oraingo boskotearekin; haiekin interpretatuko ditu bere konposizioak, lau hari-instrumentuk lagunduta: biolina, biola, biolontxelo eta kontrabaxua.



57 JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY / JUILLET
21-25 2022

Trinitate plazako bigarren jardunaldia, uztailaren 23koa, emanaldi heterogeneo bat izango da, bi artista sutsu eta berezi izango dituen. Lehena, **Steve Coleman** saxofonista, berdinek ez duen bere proposamen txundigarriarekin; maisutasun erritmiko eta harmonikoaren erakustaldi paregabe batekin entzulea erakartzen duten instrumentisten tradizio baten jarraitzailea, musika-pieza bakoitza epopeia baten antzera bizi dutenen haiena, alegia. Bere ondoren, estilo zeharo desberdin bat aurkezten duen musikari bat, **Louis Cole** nabarmena, paregabea eta geldiezina; jatorriz bateria jotzailea bada ere, eszenatokian abestu, eta teklatuak zein baxua jotzen ditu. Inor axolagabe utziko ez duen emanaldi batekin itxiko du Louis Colek Trinitateko bigarren saio hori.

Amina Claudine Myers AACMeko kide izan da; musikari sortzaileen aurrerabiderako elkarte, Chicagon sortua, baina Harlemen bere urte, kontzertu eta lorpenik handienak bizi izan zituena. Bluesy-a, afrikarra, abangoardista, Jazzaren historia hutsa da bere pianoa. Uztailaren 24an, 1950eko hamarkadako gospel beltzari egindako omenaldi bat aurkeztuko digu, aipatutako elkarteko ordezkari gailenetako batzuen alabek lagunduta. Haien ondoren, **Kurt Elling**, gustukoen artean dugun beste Jazz bokalista bat, bere *SuperBlue* proiektuarekin, Charlie Hunter gitarrista laguntzaile duela, Funkera ahal duten gehien hurbiltzen.

Azkeneko egunean, uztailaren 25ean, Trinitate plazan, emakumezko Jazzaren beste bi ordezkari handi. **Lakecia Benjamin** saxofonista oldartsuarekin hasiko gara, zeinak omenaldi sentitu bat egingo dion Coltrane senar-emazteak, Johnek eta Alicek, konposatutako musikari. Eta 57 Jazzaldia ixteko, Jazz bokalaren dama handia, **Diana Krall**, gure Jazzaldian, 1997an lehen aldiz etorri zenetik, hain kontzertu harrigarriak eta ahaztezinak eskaini izan dizkiguna.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus

www.jazzaldia.eus



57 JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA / JULIO / JULY / JUILLET
21-25 2022

Bi agertoki horietan izango diren kontzertuetarako sarrerak eta abonua salgai jarri dira jada Jazzaldiaren webgunean www.jazzaldia.eus eta Victoria Eugenia Antzokiko leihatilan.

Datozen hilabeteetan jarriko dira salgai Victoria Eugenia Antzokirako sarrerak ere. Bertan egingo dira JazzEñeren emanaldiak data horietan bertan, goizez. Eta egoera sanitarioak Jazzaldiaren bideragarritasuna bermatu bezain laster, dohainik diren agertoki desberdinetako programazioak iragarriko dira, horien artean, Keler agertokikoa, Zurriola hondartzan.

57 Jazzaldiko esparru desberdinek kerik gabeko gunek izaten jarraituko dute, eta horietan zorrotz jarraituko dira kontzertuak emateko unean indarrean dauden araudi sanitarioak.

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus

www.jazzaldia.eus